

Labayru ikastegiak 25 urte Euskal Kulturaren alde

Igaro den 2002. urteko ekainaren lehen astean egin ziren Labayru Ikastegia sortu zeneko XXV. Urteurrena ospatzeko oroimen-ekitaldi nagusiak Bilboko hirian. Erakunde hau, Bilboko Elizbarrutiak fundazio kanoniko gisa eraikia da, euskal kultura eta jakintza ikertzea eta hedatzea oinarritzko helburu duela.

Egitaraua abian hasi baino egun batzuk lehenago bibliografi erakusketa bat ireki zen Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren Erakusgela nagusian, “Eleiza eta euskera” izenburutzat zuena. Arrakasta handia erdietsi zuen erakusketa honek, eta beronen bidez nahi izan zen Elizak euskararen alde azken mendeotan egin duen ekarria modu zehatz eta didaktiko batez gizarteari aditzera ematea. Jakintza-arlo eta gai diferentetako berrehun bat obra, handi eta txiki, erakutsi ziren berean, ia guztiak Labayru Ikastegiaren bibliografi ondaretik atereak.



XXV. urteurrenaren hasiera-ospakizuna, Paul Poupard Kardinala buru dela. Euskalduna Jauregian (2002).

Egitarauko ospakizun nagusia, Bilboko Euskalduna Jauregian izan zen ekainaren 3an. Saio akademiko horren buru Paul Poupard kardinala izan zen, Eliza Katolikoaren Kultura Kontseiluko Lehendakaria. Mahaiburuan, Jaun Kardinalarekin batera, ondoko hauek egon ziren: Ricardo Blázquez, Bilboko Gotzaina, Josu Bergara, Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Iñaki Azkuna, Bilboko Alkatea, Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilaria, eta Juan Ramon Ibarra eta Ander Manterola, Labayru Ikastegiaren Lehendakari eta Zuzendaria, bata eta bestea. Jende asko bildu zen ekitaldi horretara: eliz eta herri agintariak, kultura erakundeetako ordezkariak, eta erakundeko laguntzale, adiskide eta inguruko jendea.

Ospakizunei hasiera eman aurreko asteetan, maiatzean zehar, gertakizun hori dela-ta hainbat idazlan atera ziren komunikabideetan, jakintza munduko eta gizarteko adituen eskutik.

2002. urte osoan zehar partaidetza ugari izan zituzten Labayru Ikastegiko ardura-dunek bertoko prentsa, irrati eta telebistetan. Labayru Ikastegiak artean jasoak zituen sarien gainera, Durangoko Gerediaga Elkartek "Argizaiola 2002" saria eskaini zion erakundeari, Durangoko Liburu eta Diska Azokan ospakizun berezi baten barruan eskaini zitzaiona.

Zilarrezko ezteion oroimen-ospakizunon gomuta irauarazteko asmoz, formato handiko hiru liburuskara atera dira: eurotan jaso dira partaideen hitzaldi eta adierazpenak, erakundearen historia, erakusketaren edukia, eta prentsan azalduriko idazlanak. Liburuskon izenburuak hauek dira: *XXV Años de Historia/XXV Urteko Bidea 1977-2002*; *Iglesia y euskera/Eleiza eta euskera* (erakusketaren katalogoa) eta *XXV Urteurrena/XXV Aniversario 1977-2002*. *Ospakizuna/Actos*, guztiak Bilbao Bizkaia Kutxarekin batera argitaratuak.



Labayru Hiztegiaren aurkezpena Bizkaiko Foru Aldundiko Jauregian (2003).

Labayru Ikastegiaren une jakin bateko kronika honi osotasuna emateko, gogora dezagun fundazio hau ekimen pribatuz sortu zela eta erakunde gisa 1977ko otsailaren 23an eraiki zela. Arauen aginduz duen gomendioa, euskal populuaren kultura eduki eta baloreen alde jokatzeko da, lehena gordeaz eta bermatuz eta gaur egungo beharren arabera gaurkotuz. Erakundearen ekintza-eremua Bizkaiko lurraldea da batez ere, nahiz beronen itzala eta eragina Euskal Herri osora hedatzen eta beste lurraldeetako ondare eta ekarriak biltzen eta sakontzen ere saiatzen den.

Helburuok betearazteko Arlo edo Departamentu batzuk ditu ikastegiak. Batetik, euskal hizkuntzaren irakaskuntza, ikerkuntza eta hedakuntzarako Arloa; bestetik, euskal etnografia aztertu eta ikertzeko Arloa, Euskal Herriko Etnografi Atlasazuzendu eta koordinatzen duena. Badu euskal gaien biblioteka bat ere, *Euskal Biblioteka* izenekoa, Eusko Jaurlaritzak 1989an "Bibliografi Ondare Altxor" bezala aitortu zuena, eta guztira 60.000 obra inguru biltzen dituena. Erakundeak badu, azkenik, Argitaratze Zerbitzu bat ere, departamentuen emaitzak argitara ematen dituena. Gaurdainoko argitarapenen kopurua 200 titulu ingurura heltzen da. Horiez gainera, ikerkuntza aldizkari bi-bata hizkuntza-literatura arloetakoa eta bestea etnografia arlokoa eta literatura aldizkari bat ateratzen ditu aldioro.

Lan egoitza bi ditu Ikastegiak, Bilbon bata, Derion bestea. Bilbon datza erakundearen egoitza ofiziala eta baita Euskal Hizkuntza Departamentuarena ere (Aretxabaleta kalea, 1, 1ngo). Derion dute egoitza Etnografia Departamentuak, Bibliotekak eta Argitaratze Zerbitzuak (Larrauri kalea, 1-A, 5gna, Seminario zaharraren etxea).

Adolfo Arejita